



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko otsailaren 5a

16. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 9an eginitako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** Helburua (6. or.).
- III.** Norainokoa (6. or.).
- IV.** 2013ko kontu orokorrari buruzko iritzia (7. or.).
  - IV.1. Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorra (7. or.).
  - IV.2. Legezkotasuna (7. or.).
  - IV.3. 2013ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (7. or.).

- IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (10. or.).
- V.** Kontu orokor bateratuaren laburpena (11. or.).
  - V.1. Aurrekontu bateratuaren betetze-egoera (11. or.).
  - V.2. Aurrekontu-emaizta bateratua (12. or.).
  - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua (12. or.).
  - V.4. Egoera-balantze bateratua (13. or.).
  - V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua (14. or.).
- VI.** Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (15. or.).
  - VI.1. Alderdi orokorrak (15. or.).
  - VI.2. Langileak (16. or.).
  - VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (18. or.).
  - VI.4. Inbertsioak (19. or.).
  - VI.5. Aurrekontuko diru-sarrerak (19. or.).
  - VI.6. Hirigintza (21. or.).
  - VI.7. "Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizarrak, SA" (GEDEMELSA) udal sozietatea (21. or.).

Eranskina: 2013ko kontu bateratuen oroit idazkia


(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean: [www.cfnabarra.es/camara.comptos](http://www.cfnabarra.es/camara.comptos)).

## I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Lizarrako Udalaren eta haren erakunde autonomo "Julián Romano" Musika Patronatuaren 2013ko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Lizarrako udalerriak 15,39 km<sup>2</sup>-ko hedadura du, eta 13.947 biztanle zituen 2013ko urtarrilaren 1ean.

Udalaren eta haren menpeko erakundeen osaera ondoko grafikoan agertzen da:



2013ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

- Sektorre Publiko Administratiboa, Udalak berak eta bere erakunde autonomo bakarrak, "Julián Romano" Musika Patronatuak, osatua.

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubi-deak	Langileak, 2013-12-31n
Udala	10.288.286	11.189.919	131 <sup>(1)</sup>
Musika Patronatua	386.720	442.296	16
-Bateratzearen doitzeak	-311.658	-311.658	-
<b>Guztizkoa, bateratua</b>	<b>10.363.348</b>	<b>11.320.557</b>	<b>147</b>

(1) Kopuru honek gizarte enpleguko programako 14 parte-hartzaileak biltzen ditu. Haiekiko lan-harremana 2013ko abenduaren 22an amaitu zen.

Udalak "Julián Romano" Musika Patronatua erakunde autonomoari egindako ekarpena 275.804,30 eurokoa izan zen. Ekitaldiaren amaieran ia guztiz ordainduta zegoen.

- Enpresen Sektorre Publikoa: 2006an, Udalak "Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizarra, SA" (GEDEMELSA) enpresa sortu zuen, 60.500 euroko kapital

sozialarekin, jabetza osoa Udalarena duena. Elkarte horrek ez du inolako jarduerarik egin sortu zene-tik. 2013an, 2.679 euroko gastuak eta 232 euroko diru-sarrerak dauzka.

Udala Jurramendiko Mankomunitateko kidea da, eta horren bitartez uraz hornitzeko eta hondakinak biltzeko zerbitzuak ematen ditu. Lizarraldeko Turismo Partzuergoan eta L'Urederra elkartean ere parte hartzen du. Zerbitzu hauek guztiek 149.779,63 euroko gastuak eragin dizkiote Udalari.

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taulan ageri direnak dira:

Zerbitzua	Udala	Erakunde autonomoak	Mankomunitatea	Zerbitzu kontratuak
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Musika eskola		X		
Hirigintza	X			
Ur-hornidura			X	
Hiri hondakinak			X	
Kale garbiketa				X
Udal hilerria				X
Kultur etxea	X			
Liburutegia	X			
Gustavo de Maeztu museoa	X			
Haur Eskola	X			
Kontsumitzaileari informazioa emateko bulegoa				X
Gizarte zerbitzuak	X			
Etxeko arreta	X			
Kultur etxea	X			
Gazteen etxea	X			
"Tierra Estella" kirol-pabiloia				X
"Remontival" frontoia				X
Berdintasuna	X			
Herritarrentzako Arreta	X			
Diru-bilketa exekutiboa				X
Lantegi-eskolak	X			
Udako igerilekuak				X
Udal-hiltegia				X
Los Llanos aisiarako zentroa				X
Aterpetxeak				X
Eremu urdina eta lurpeko aparkalekua				X

Toki entitateari 2013ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Udalaren aurrekontua 2013ko maiatzaren 16an onetsi zen. Kontuei dagokienez, Udalaren Osoko Bilkurak 2014ko uztailaren 3an onetsi zituen.

Sozietate publikoa, bere estatutuez gainera, toki-araubidearen araudi orokorraz eta indarrean da goen merkataritza-araudiaz arautzen da, Merkataritza Kodeaz, Kapital Sozietateen legeaz eta Kontabilitate Plan Orokorraz, bereziki.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako fiskalizazio-lanaren norainokoa eta mugak. Laugarrenean, Udalaren kontu orokorrari buruz dugun iritzia azaltzen dugu. Bosgarren atalean kontu orokor bateratu horren laburpen bat jaso dugu, eta, seigarren eta azkenekoan, berriz, Udalaren, haren erakunde autonomoaren eta haren mendeko sozietate publikoaren barne-antolaketa eta -kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Horrez gainera, eranskin bat sartu da, Udalak 2013ko ekitaldiko kontuei buruz egindako oroitidazkiarekin.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Udaleko eta haren erakunde autonomoko langileei.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearekin eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Lizarrako Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorren erregulartasun-fiskalizazioa egin da.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Lizarrako Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak Udalaren egoeraren irudi zehatza erakusten duen alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2013ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.
- Aplikagarri zaion legedia zer neurritan betetzen den Lizarrako Udalak eta haren menpeko erakunde autonomoak 2013an aurrera eramandako jardueran.
- Lizarrako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2013ko abenduaren 31ko finantza-egoera.
- Zenbateraino betetzen diren Ganbera honek 2012ko ekitaldiari buruzko txostenean emandako aholkuak.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

## III. NORAINOKOA

Kontuen Ganberak Lizarrako Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Honako kontabilitateko egoera-orriak hartzen ditu:

- Toki entitatearen beraren eta "Julián Romano" musika patronatua erakunde autonomoaren kontua: aurrekontuaren likidazioa, aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, balantzea eta galeren eta irabazien kontua.
- Udal sozietatearen urteko kontuak: balantzea, galeren eta irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketan egoera-orria eta oroitidazkia.
- Kontu Orokorraren eranskinak: oroitidazkia, egoera-orri bateratuak, zorraren egoera eta esku-hartzeari buruzko txostena.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz. Inguruabarren eta azterlanaren helburuen arabera, beharrezkotzat jo ditugun hautaprobea edo prozedura tekniko guztiak aplikatu dira; prozedura horien artean laginen teknika edo kontusail edo eragiketa jakin hautatuak aztertzeko teknika erabili dira.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarritzko prozedura administratiboak ere; aztertu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak.

#### IV. 2013ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Lizarrako Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta labor-labor jaso da txosten honen V. atalean.

Gure azterketa-lanetik ondoko iritzia ondorioztatu dugu:

##### IV.1. UDALAREN 2013ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, oraindik eguneratu gabe dago eta ez ditu ondasun eta esku-bide guztiak jasotzen; hartara, ezinezkoa izan da egoera-balantze bateratuko ibilgetuaren saldoaren arrazoizkotasuna egiaztatzea; saldo hori, 2013ko abenduaren 31n, 70,5 milioi eurokoa zen.

Arestian aipatutako salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

##### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2013ko ekitaldian Udalaren eta haren erakunde autonomo "Julián Romano" Musika Patronatuaren jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkontasun-printzipioari jarraituz egin dela.

##### IV.3. 2013ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 10,4 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 23 handitu da aurrekontu-aldaketan bitartez. Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 12,9 milioikoak dira. Aldaketa horiek, gastuei dagokienez, inbertsioen kapituluaren egin dira; diru-sarrerari dagokienez, berriz, transferentzietan eta finantza-aktiboetan egin dira.

Aitortutako betebeharrak 10,4 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 81eko betetze-maila izan dute. Maila horren arrazoa da inbertsio errealeko gastuen betetzea txikia izan dela, ehuneko 43koa hain zuzen.

Aitortutako eskubideek 11,3 milioi euro hartzen dute guztira, eta betetze-maila ehuneko 88,2koa da.

Beren izaerari erreparatuta, gastu arruntek gastuen ehuneko 90 egiten dute. Diru-sarrera arruntak guztizkoaren ehuneko 96 dira; diru-sarreraren ehuneko 48, berriz, jasotako transferentzietatik heldu dira (ehuneko 44 transferentzia arruntetatik eta ehuneko 4 kapital-transferentzietatik).

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Kopurua	Finantzabidea	Kopurua
Langileak	52	Tributu bidezko diru-sarrerak	47
Bestelako gastu arruntak	38	Transferentziak	48
Inbertsioak	8	Ondare bidezko diru-sarrerak eta inbertsioen besterentzea	5
Finantza-zama	2		
	100		100

Hona Udalaren 2013rako aurrekontu bateratuaren betetzeari eta betetze horrek 2012tik izan duen bilakaerari buruzko datu ekonomikoak (eurotan):

	2013	2012	Aldea, portzentajea 2013/2012
Aitortutako betebeharrak	10.363.348	10.181.689	2
Likidatutako eskubideak	11.320.557	11.705.217	-3
Gastuen betetzea (%)	81	84	
Diru-sarrerren betetzea (%)	88	96	
Ordainketak (%)	90	92	
% kobrantza	91	86	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	9.324.717	9.086.752	3
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	9.236.121	8.935.498	3
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	872.697	938.793	-7
Finantza-eragiketengatiko gastuak (8. eta 9. kapituluak)	165.934	156.145	6
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	10.744.787	10.282.559	4
Tributu bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	5.673.660	5.559.761	2
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	575.771	1.422.658	-60
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	48	48	
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	61	61	
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	1.123.142	1.679.672	-33
Aurrekontu-emaizta doitua	1.305.451	1.680.654	-22
Aurrezki gordina	1.508.665	1.347.061	12
Finantza-zama (3.etik 9.era)	249.530	307.398	-19
Aurrezki garbia	1.259.136	1.039.663	21
Zorpetze maila (%)	2,32	2,99	
Zorpetze muga (%)	14,04	13,1	
Zorpetze-ahalmena (%)	11,72	10,11	
Diruzaintza-gerakina, guztira	2.842.580	1.907.906	49
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	2.398.395	1.201.961	99
Udalaren zor bizia	6.299.032	6.459.965	-2
Zor bizia biztanleko	421	457	-8
Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia (%)	59	63	
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	4,2	4,8	

2013an, Udalak aurreko ekitaldian baino ehuneko 2 gehiago gastatu du (200.000 euro gehiago), funtsean gora egin dutelako ondasunen eta zerbitzuen kapituluak (177.000 euro gehiago) eta transferentzia arruntenak (147.000 euro gehiago), eta behera egin dutelako finantza-gastuek (62.000 euro gutxiago) eta inbertsio errealek (66.000 euro gutxiago).

Bestalde, diru-sarrerak ehuneko 3 gutxiago izan dira –hau da, 400.000 euro–; jaitsiera horren arrazoia da behera egin dutela inbertsio errealen besterentzeengatiko diru-sarrerak (2013an milioi bat izatetik 2013an 80.000 izatera pasa dira) eta gora egin dutela ondare bidezko diru-sarrerak (2012an 400.000 euro izatetik 2013an 124.000 izatera pasa dira, 2012an Udalaren jabetzako zenbait garaje-plazaren salmenta kontabilizatu zelako; lehenago administrazio-kontzesio gisa lagata zeuden garaje-plaza horiek).

Aurrekontu saldo ez-finantzarioa positiboa da, 1,1 milioi eurokoa; horrek adierazten du diru-sarrera ez-finantzarioak izaera bereko gastuak finantzatzeko behar adinakoak direla. 2012an, saldo hori ere positiboa izan zen, 1,7 milioi eurokoa.

Aurrekontu-emaizta doitua 1,3 milioi eurokoa da; aurreko urtean, berriz, emaitza 1,7 milioi eurokoa izan zen.



2013an, bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak balio positiboak dauzkate, 1,5 eta 1,3 milioi-koak, hurrenez hurren, eta ehuneko 12 eta ehuneko 21 hazi da aurreko urteko balioekin alderatuta.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 2,32koa da, eta ehuneko 14,04ko muga du; horregatik, hain zu-zen, oraindik ere badu zorpetze berrietarako ahalmen ekonomikorik.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina –hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko ahalmena neurtzen duen adierazlea– positiboa izan zen: 2,4 milioi euro (2012an, berriz, 1,2 eurokoa izan zen).

Epe luzeko zorra 6,3 milioi eurokoa zen 2013an; 2012an, berriz, 6,4 milioi eurokoa izan zen. Zor hori –zeina 452 eurokoa baita biztanle bakoitzeko– erakunde honen diru-sarrera arrunt guztien ehuneko 59 da; ehuneko horrek ez du gainditzen gaur egun zor berriak hartzeko dagoen legezko muga (ehuneko 110). 2013an lortutako aurrezki gordinaz baliatuz, 4,2 urte beharko liriateke Udalak gaur egun duen zorrari aurre egiteko.

Beste alde batetik, hirigintzaren kudeaketaren ikuspegitik, 1995ean onartutako Lizarrako plangintza ia erabat amaituta dago.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den kalkulatu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean horretarako eman duen gidaz baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Kopurua
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	1.123.142
Doikuntzak	-835.405
<b>Finantzatzeko ahalmena</b>	<b>287.737</b>

Ikusi da Lizarrako Udalak aurrekontu-egonkortasunaren baldintzak betetzen dituela, bai eta gastua- ren araua ere, zeren eta egoztekoa den gastua txikiagoa baita ezarritako muga baino (2012koa gehi ehuneko 1,7); halaber, finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzen du, zeren eta zorra ezarritako mugatik beherakoa baita.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta betetzean zorrotz jokatzek eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

## IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Ganbera honen aurreko txostenari erreparatuta –2012ko ekitaldiari buruzkoa da eta 2014ko otsailan argitaratu zen–, hartan adierazi genuen oraindik ere ebazteko daudela, besteak beste, txosten honen VI. atalean berresten den bezala, izaera administratibo eta kontabilitatekoa duten gomendio batzuk, ekitaldi horretakoak eta aurrekoak; haien artean, honakoei buruzkoak daude:

- *Aurrekontu orokorra dagokion ekitaldiaren aurreko urtearen abendua 31 baino lehen osatzea eta behin betiko onartzea, kudeaketarako funtsezko tresna izan dadin.*
- *Oroitidazkian urteko kontuak ulertzen laguntzeko beharrezkoa den informazio guztia sartzea, besteak beste, hirigintzako jarduerari buruzko datuak eta Udala sartuta dagoen errekurtsoen zerrenda.*
- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentarioa egitea eta onestea, eta dokumentazioaren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko alden eta baje jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzeko eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko aukera emanen duena.*
- *Hirugarren batekin egindako kontratuen indarraldia gehiago kontrolatzea eta dagokion lizitazio-prozeduraren hasiera behar adinako denboraz planifikatzea.*
- *Udal-sozietateak jarduerarik ez duenez, erakundeak berak existitu behar duen aztertzea.*

**V. KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA****V.1. AURREKONTU BATERATUAREN BETETZE-EGOERA**

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako betebehar garbiak	Betetzea, %	Ordainketak	Ordainketen ehunekoa	Ordaintzeko dagoena
1 Langile-gastuak	5.843.025	5.923.566	5.366.786	91	5.313.300	99	53.486
2 Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	3.549.545	3.812.452	3.120.072	82	2.432.633	78	687.439
3 Finantza-gastuak	163.871	146.971	88.596	60	45.157	51	43.439
4 Transferentzia arruntak	566.563	790.147	749.263	95	649.298	87	99.965
6 Inbertsio errealak	136.325	2.024.180	872.697	43	727.515	83	145.182
7 Kapital-transferentziak	-	-	-	-	-	-	-
8 Finantza-aktiboak	5.000	5.000	5.000	-	-	-	5.000
9 Finantza-pasiboak	158.055	160.955	160.934	100	160.934	100	-
Guztira	10.422.384	12.863.271	10.363.348	81	9.328.837	90	1.034.511

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubide garbiak	Betetzea, %	Kobran- tzak	Kobrantzen ehunekoa	Egiteko dauden kobrantzak
1 Zuzeneko zergak	3.709.258	3.709.258	4.035.536	109	3.730.202	92	305.334
2 Zeharkako zergak	309.608	309.608	312.762	101	298.139	95	14.623
3 Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.232.871	1.232.871	1.325.362	108	1.173.524	89	151.838
4 Transferentzia arruntak	5.016.302	5.091.277	4.947.117	97	4.693.963	95	253.154
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	127.025	127.025	124.010	97	101.745	82	22.265
6 Inbertsio errealak besterentzea	12.000	12.000	80.000	-	80.000	100	-
7 Kapital-transferentziak	16.393	474.399	495.770	104	182.038	37	313.732
8 Finantza-aktiboak	-	1.956.273	-	-	-	-	-
9 Finantza-pasiboak	-	-	-	-	-	-	-
Guztira	10.423.457	12.912.711	11.320.557	88	10.259.611	91	1.060.946

## V.2. AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	11.320.557	11.705.217
- Aitortutako betebeharrak	-10.363.348	-10.720.432
Aurrekontu-emaitza	957.209	984.785
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-350.189	-518.036
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	320.571	675.163
+ Diruzaintza-gerakin likidoarekin finantzatutako gastuak	377.860	-
Aurrekontu-emaitza doituia	1.305.451	1.680.655

## V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA

Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	588.259	967.337
(+) Diru-sarrerren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.060.945	1.485.515
(+) Diru-sarrerren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	3.529.692	3.449.745
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	-24.880	39.408
+ Ordainketen itzulketak	-	-
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-3.977.499	-4.007.331
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-	-
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.350.295	1.318.545
(+) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.034.513	836.183
+ Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	4.325	36.108
+ Diru-sarrerren itzulketak	-	-
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	311.457	446.255
- Aplikatzeko dauden gastuak	-	-
+ Diruzaintzako funts likidoak	3.604.616	2.259.114
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	-	-
Diruzaintza-gerakina, guztira	2.842.580	1.907.906
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa duten gastuak direla-eta	365.202	283.267
Diruzaintza-gerakina, atxikitako gastuak direla-eta	78.983	422.678
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	2.398.395	1.201.961

## V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

## Aktiboa

Deskribapena	2013	2012
A Ibilgetua	70.570.379	71.950.217
C Zirkulatzaila	4.295.045	3.565.893
8 Zordunak	631.142	1.019.764
9 Finantza-kontuak	3.607.403	2.486.629
10 Aktiboaren beste kontu batzuk	56.500	59.500
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>74.865.424</b>	<b>75.516.110</b>

## Pasiboa

Deskribapena	2013	2012
A Funts berekiak	67.113.624	67.398.620
1 Ondarea eta erreserbak	37.922.397	38.381.878
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	-780.767	-467.208
3 Kapitaleko diru-laguntzak	29.979.721	29.483.950
C Epe luzeko hartzekodunak	6.299.032	6.459.965
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	6.299.032	6.459.965
D Epe laburreko hartzekodunak	1.452.768	1.657.525
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	1.352.922	1.354.525
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	38.475	16.806
8 Pasiboaren beste kontu batzuk	61.371	286.194
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>74.865.424</b>	<b>75.516.110</b>

## V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA

## Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2013	2012	Deskribapena	2013	2012
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galeraren ondoriozko zuzkidura	0	0	39 Izakinen balio-galeraren ondoriozko zuzkidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	642.772	544.735
61 Langile-gastuak	5.398.664	5.422.068	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	781.982	409.124
62 Finantza-gastuak	88.419	151.083	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	3.082.732	2.956.025
63 Tributuak	0	0	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	736.438	733.366
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	3.116.059	2.944.353			
65 Gizarte prestazioak	8.187	8.313	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	5.258.774	5.419.566
67 Transferentzia arruntak	1.027.548	829.985	77 Kapitalaren gaineko zergak	529.128	466.664
68 Kapital-transferentziak	-	31	78 Bestelako diru-sarrerak	24.850	356.023
69 Ekitaldiko zuzkidurak amortizazio eta horniduretarako	2.182.322	2.147.848	79 Beren jarduerara aplikatutako hornidurak	0	0
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	54.272	0	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	818.795	638.178
<b>Guztira</b>	<b>11.875.471</b>	<b>11.503.681</b>	<b>Guztira</b>	<b>11.875.471</b>	<b>11.503.681</b>

## Ekitaldiko emaitzak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2013	2012	Deskribapena	2013	2012
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	818.795	638.178	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	54.272	-
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)			82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	38.112	453.351
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)			83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)		
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	54.356	282.381	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)		
89 Etekin garbia guztira			89 Galera garbia, guztira	780.767	467.209
<b>Guztira</b>	<b>873.151</b>	<b>920.559</b>	<b>Guztira</b>	<b>873.151</b>	<b>920.559</b>

**VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK**

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Kontuen Ganbera honen aburuz Udalak jarraitu behar dituen ondorioztapen eta gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

**VI.1. ALDERDI OROKORRAK**

- Udalak, 2013ko martxoaren 23an egindako Osoko Bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Udalaren 2013rako aurrekontua. Behin betiko onespena 2013ko maiatzaren 16an argitaratu zen.
- Ez da ikusi 2013koak izan eta 2014an kontabilizatutako kantitate handiko fakturarik.
- Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da; ez da gaurkotu, eta Udalaren ondasun guztiak ez daude bertan txertatuta. Hala ere, 2003. urteaz geroztik udal-zerbitzuei atxikitako udal-ondasunen zerrenda bat du, kostuak kalkulatzeko; ondasunen altak zerrenda horretan adierazten dira, eta ez inbentarioan; ez dago kontabilitatearen eta inbentarioaren arteko loturarik. Erabilera publikoko ondasunak, behin erabilera orokorrerako eman ondoren, kontabilitatean ez dira aldatzen erabilera orokorrari emandako ondarearen kontura.
- Udalak aurkeztutako oroitidazkian ez dira jasotzen Gedemelsa sozietate publikoaren urteko kontuak –sozietate horrek ez du jarduerarik–; haren datuak bai jasotzen dira balantze bateratuan. Halaber, aipatutako oroitidazkiak ez dakar daturik hirigintza-jarduketei buruz eta Udala sartuta dagoen errekurtsoen zerrendari buruz.
- Ez dugu aurkitu Udala aipatzeko moduko prozedura judizialtan sartuta dagoenik.
- Epe luzerako zor biziaren amortizazio-egutegia, abenduaren 31n zegoen bezala, ondoko taula honetan agertzen dena da (eurotan):

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2014	164.587,76	2,61	2,61
2015	166.738,16	2,65	5,26
2016	168.010,65	2,67	7,93
2017-2021	1.712.044,42	27,18	35,11
2022-2026	1.362.550,25	21,63	56,74
2026	2.725.100,49	43,26	100,00
	6.299.031,72	100,00	

Hona gure gomendioak:

- *Kasuko ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen prestatzea eta behin betikoz onestea aurrekontu orokorra, kudeaketarako oinarrizko lanabesa izan dadin.*
- *Oroitidazkian urteko kontuak ulertzen laguntzeko beharrezkoa den informazio guztia sartzea; besteak beste, hirigintzako jardueri buruzko datuak eta Udala sartuta dagoen errekurtsoen zerrenda.*
- *Udal ondasun eta -eskubide guztien inbentario balioztatua egitea eta onestea.*
- *Udalaren inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutzea eta aplikatzea.*
- *Udal ondasunak –jabari publikoak, ondarekoak eta herri-ondasunak– eskritoretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatu behar da.*
- *Ibilgetutik kentzea azpiegituretan eta erabilera orokorrerako ondasunetan egindako inbertsioak, behin haiek egin ondoren.*

## VI.2. LANGILEAK

Langileen gastu bateratuak 5.366.786 euro egiten du; 5.077.064 euro Udalari dagozkie, eta 325.575 euro, berriz, "Julián Romano" Musika Patronatuari. 35.853 euroko bateratze-doikuntza bat erregistratu da. Gastu horiek 2013an sortutako guztiaren ehuneko 52 eta gastu arrunten ehuneko 59 egiten dute.

Udalarentzat, 2012ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu hau ehuneko 0,5 jaitsi da.

Udalaren langile-gastuak		2013	2012	Aldea (%) 2013-2012
10	Goi-karguak	136.198	137.506	-0,95
11	Kabineteetako behin-behineko langileak	51.764	50.575	2,35
12	Funtzionarioak	2.070.222	1.979.244	4,60
13	Lan-kontratadun langileak	1.040.594	1.176.222	-11,53
16	Enplegua ematen duenaren kontuko kuotak, pres- tazioak eta gizarte gastuak	1.778.286	1.759.884	1,05
I. kapitulua, guztira		5.077.064	5.103.531	-0,52

Osoko Bilkurak 2013ko martxoaren 23an onesti zuen hasiera batez Udalaren eta "Julián Romano" Musika Patronatuaren 2013ko ekitaldiko plantilla organikoa. Behin betiko onespena 2013ko ekainaren 5ean argitaratu zen. Hona hemen haren osaketa:

Entitatea	Lanpostuak, guztira	Lanpostu hutsak
Udala	94	25
"Julián Romano" Musika Patronatua	16	-
Guztira	110	25

Datu horietatik ondorioztatzen da bete gabe dauden postuak ehuneko 25 inguru direla, Udalean denak.

2013ko eta 2012ko abenduaren 31n, honakoak dira Udalaren langileak:

Langileak	2013	2012
Izendapen askea	1	1
Funtzionarioak	64	64
Lan-kontratadun finkoak	5	5
Aldi baterako lan-kontratadunak	61	69
Guztira	131	139

Aldi baterako langileen barruan, lantegi eskolako ikasleak daude, 18 langile (ikasle), bai eta gizarte enplegu babestuko 14 langileak ere, nahiz eta horiek 2013ko abenduaren 22an amaitu zuten beren lan-harremana.



Zehazki Udaleko langileak direnak arlo hauetara atxikirik daude:

Arloak	2013	2012
Bulegoak	11	11
Polizia	27	27
Obra-brigada	7	7
Lorategietako brigada	3	3
Kultur etxea	2	2
Arlo ekonomikoa	3	3
Gizarte ongizatea	13	12
Emakumea	1	1
Ikastetxe publikoa	3	3
Hirigintza	5	5
Liburutegia	-	1
Museoa	2	2
Kirolak	2	1
Gazteria	4	3
INFOLAN	1	1
0-3 urteko ikastetxea	10	11
Musika eskola	1	1
Margolaritza ikasgelak	3	3
Euskara	1	1
Honaino, guztira	99	98
Oinarrizko errentak	-	7
Ostalaritza-tailerra	-	18
Turismo tailerra	18	-
Gizarte enplegu babestua	14	16
<b>Guztira</b>	<b>131</b>	<b>139</b>

“Julián Romano” Musika Patronatuko 2013ko eta 2012ko abenduaren 31ko langileak ez dira aldatu, 16 langile izaten jarraitzen baitute.

Gastu horien lagin bat aztertuta ondorioztatzen da, oro har, ordaindutako ordainsariak egindako lanerako ezarritakoak direla, egindako atxikipean zuzenak direla eta langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela.

2013ko ekitaldian soldata-igoerarik ez dela izan ikusi da orobat.

## VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuetako betebeharrak aitortu bateratuek (3.120.072 euro) ekitaldiko gastu osoen ehuneko 30 egiten dute, eta eragiketa arruntetako gastuen ehuneko 33. 2012. urtearen aldean, ehuneko 6 egin dute gora.

2013ko ekitaldian egindako esleipenen lagin bat aztertu dugu:

	Kontratu mota	Prozedura	Eskaintzak	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa kenduta)	2013an betetako zenbatekoa eurotan (BEZik gabe)
Udalaren erakinetako garbiketako zerbitzua	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik gora	4	223.200	220.000	*

\*Abenduan esleitu zen.

Aurreko berrikuspena eginda eta gastuen lagin bat aztertu ondoren, espedienteak izapidetzean dagoen kontratazio-araudia, oro har, bete egiten dela ikusi da.

Igoera hori zor zaio, funtsean, 2013an eraikinen konpontze-, mantentze- eta kontserbatze-lanei dagozkien gastuek gora egin izateari.

Kapitulu horretako gastu bateratutik, Udalari 3.060.071 euro dagozkio, eta "Julián Romano" Musika Patronatuari, berriz, 60.001 euro.

Atal honetako gastuen lagin bat aztertu ondoren egiaztatu da gastu horiek dagozkien fakturen bitartez justifikatuta daudela eta behar bezala kontabilizatu direla. Nolanahi ere, hainbat alderdi hobetu litezkeela ikusi da:

- Kontratu jakin batzuetan (aseguruak, trafiko arloko zehapenen eta salaketen kudeaketa) gainditu egin da araudiak ezarritako gehieneko indarraldia.

Hona gure gomendioak:

- *Kontratu-espedienteen indarraldiaren gaineko kontrola areagotzea eta garaiz planifikatzea kasuko lizitazio prozeduraren hasiera.*

## VI.4. INBERTSIOAK

Inbertsioen kapituluko aurrekontu bateratua, 2013rako, 2.024.180 eurokoa izan da.

Egindako inbertsioak, 872.697 euro egiten dutenak, Udalari dagozkio guztiz Ekitaldiko gastu guztien ehuneko 8 egiten dute, eta kapital-eragiketengatik gastuen ehuneko 100. Betetze-maila ehuneko 43koa izan da, eta 2012an egindako inbertsioekin alderatuta, ehuneko 7 jaitsi da.

Honakoa izan da azken lau ekitaldietan VI. kapituluan aitortutako betebeharraren bilakaera:

Urtea	Kopurua
2010	5,9 milioi euro
2011	2,9 milioi euro
2012	0,9 milioi euro
2013	0,9 milioi euro

2013ko ekitaldian egindako esleipenen lagin bat aztertu dugu:

	Kontratu mota	Prozedura	Eskaintzak	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa kenduta)	2013an betetako zenbatekoa eurotan (BEZik gabe)
Eraikinaren zati bat egokitzea (2. fasea) lantegi eskolarako	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	3	253.192,56	252.114,88	147.290,91
Juan Labrit kaleko urbanizazioa eta argiteria publikoa berritzea	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	4	244.093,39	229.666,94	*

\*Kontratua 2013ko abenduaren 19an sinatu zen.

Aurreko berrikuspena eginda eta gastuen lagin bat aztertu ondoren, espedienteak izapidetzean dagoen kontratazio-araudia, oro har, bete egiten dela ikusi da.

## VI.5. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2013ko ekitaldian aitortutako eskubide bateratuek 11.320.557 euro egiten dute; 130.639 "Julián Romano" Musika Patronatutik heldu dira, bateratzearen doitzeak deskontatu ostean. Betetze-maila ehuneko 88koa izan da; 2012an, ordea, ehuneko 96koa izan zen.

Diru-sarreraren ehuneko 95 eragiketa arruntei dagozkie, eta ehuneko 5 kapital-eragiketeei.

2012ko ekitaldiarekin alderatuta, aitortutako eskubide bateratuak ehuneko 3 murriztu dira, eta alde hau izan dute, atalez atal (eurotan):

Diru-sarreraren kapituluak	Aitorturiko eskubide garbiak		Aldea (%) 2013/2012
	2013	2012	
1 Zuzeneko zergak	4.035.535	3.904.817	3
2. Zeharkako zergak	312.762	231.238	35
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.325.362	1.423.706	-7
4. Transferentzia arruntak	4.947.117	5.150.195	-4
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	124.010	-427.397	-129
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	10.744.786	10.282.559	4
6. Inbertsio errealeen besterentzea	80.000	1.004.339	-92
7. Kapital-transferentziak	495.771	418.319	19
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	575.771	1.422.658	-60
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>11.320.557</b>	<b>11.705.217</b>	<b>-3</b>

2013ko ekitaldian, 2012ko ekitaldiko tasa eta tarifa berak aplikatu dira, salbu eta hiri-lurraren kontribuzioaren kasuan, zeina 2012an 0,2658 izatetik 0,2705 izatera pasa baita.

Ondorengo taulan udal zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Zerga	2013	2012	Aldea (%) 2013/2012
Lurraren kontribuzioa	2.389.128	2.327.561	3
Ibilgailuak	736.438	733.366	0
Lurren balio-gehikuntza	529.128	446.664	18
JEZa	380.840	397.226	-4
EIOZa	312.762	231.238	35
<b>Guztira</b>	<b>4.348.297</b>	<b>4.136.055</b>	<b>5</b>

Udalaren zergen bidezko diru-sarrerek ehuneko 5 egin dute gora 2012rekin alderatuta. Nabarmen-tzekoa da EIOZak izan duen igoera, ehuneko 35ekoa, eta lursailen balio-gehikuntzaren igoera, ehuneko 18koa. Bestalde, JEZak ehuneko 4 egin du behera.

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,2705	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,37-2,94	2tik 3,8ra
Zerga-tasa	17,10	8-20
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2-5

Diru-sarreren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, egiaztatu ahal izan dugu egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, oro har.

Nabarmen-tzekoa da 2012ko ekitaldian Udalari beste ekitaldi batzuetan EIOZaren kontzeptuan ordaindutakoen itzulketak eskatu zaizkiola –892.457 euro egiten dute–. Eraiki behar ziren baina, azkenean, osorik eraiki ez ziren etxebizitza-sustapenen EIOZari dagozkien, eta bi enpresari ordaindu behar zaizkie. Haiekin, itzulketa-formula bat adostu zen, geroratutako ordainketa baten bitartez.

Kopuru horietatik, 2013an, 128.708,38 euro ordaindu dira (Transferentzia arrunten gastuei dagokien 4. kapituluaren aurka kontabilizatu dira) gehi erreklamazioetako baten berandutza interesak; beste erreklamaziotik, 2014an, 608.913,61 euro gehi berandutza interesak ordaindu dira. Itzulketari buruzko akordioak 5 urtera bitarteko aldia finkatzen zuen itzulketarako, Udalaren gaitasun ekonomikoaren arabera.

#### **VI.5.1. Inbertsioak besterentzea**

Kapitulu honek 2013an 12.000 euroko behin betiko aurrekontua dauka, eta 80.000 euroko aurrekontu-betetzeari (2012an, milioi bat euro izan ziren).

2013an, besterentze bakarria Koroatze Plazako lau garaje-plazatak izan da. 80.000 euro egin du.

## VI.6. HIRIGINTZA

Udalak bere baliabideekin egiten ditu hirigintzako zereginak, Hirigintza Zerbitzuen Arloaren bitartez. Jarduera berekiak gartzeko esleitutako langileak honakoak dira: arkitekto bat (buleguburua), udal zaindari bat eta bi administrari ofizial.

Horrez gainera, Udalak hainbat kontratu gauzatu ditu hirigintzaren alorreko kanpoko aholkularitza-enpresekin (arkitektura, aholkularitza juridikoa, arkeologia eta ingeniari-tza), eta horiek 2013an 50.676 euroko gastua sortu dute guztira.

Indarrean den Hirigintza Plana 1995ean onetsi zen, eta ia erabat amaitu da haren garapena.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak (LFOTU) hiru urteko epea ezarri zuen, 2006ko apirilera bitartekoa, indarrean diren planeamenduak homologatzeko eta egokitzeko. 2007ko maiatzaren 3an Udal Plan Orokorren hasierako onespena. Planaren Jarraipen Batzordeak jasotako alegazioei buruzko txosten teknikoa 2008ko martxoan aurkeztu zen.

Udalaren Osoko Bilkurak, 2009ko maiatzaren 7an, jasotako alegazioak alde onartzea adostu zuen, eta baita udal talde politikoek egindako proposamen jakin batzuk ofizioz sartzea ere. Egindako aldaketek 2007an hasiera batez onetsitako Udalaren Plan Orokorreko egitura organikoaren funtsezko aldaketa zekartela iritzita, Udalak 2009ko abenduaren 11n egindako Osoko Bilkuran onetsi zuen espediente jendaurrean berriz jartzea.

Behin-behineko espedientearen aurka errekurtsua aurkeztu zen Nafarroako Administrazio Auzitegian, zeinak arrazoi eman baitziren, formazko akats bat zela medio, errekurtsua aurkeztu zutenei. Txosten hau idazteko egunean, oraindik ere ez da plan berria onetsi; horri dagokionez, nabarmendu behar dugu 2007ko urtarriletik –hasierako onespeneren data– denbora luzea iragan dela.

Udalak ez du hirigintzako hitzarmenen erregistrorik, ezta artxibategirik ere. Hirigintzako sailetik, 2011ko martxoaren 17an, proposamen bat aurkeztu zen: “Hirigintzako hitzarmenen erregistroa eta artxibategia antolatzeke eta funtzionatzeko arauak”, baina haren edukia oraindik ez da onartu.

Udalak ez du kudeatzen bere lurzoru-ondarea erakundearen gainerako ondasunetatik bereizita. Horri dagokionez, inbentarioan ez da jasotzen ondare hori loturaduna eta bereizia izatea, eta era berean, ez da sortu erregistroa.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintza planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenei egokitzeko prozesua osatzea eta plan orokor berria behin betiko onestea.*
- *Hirigintzako hitzarmenak erregistratzea eta artxibatzea, indarrean den legediak eskatzen duen dokumentazioarekin.*
- *Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa eta inbentarioa eratzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, hirigintzari buruzko legedian jasotako helburuei lotuta dagoelako.*

## VI.7. “ENTIDAD PARA LA GESTIÓN DEL DESARROLLO MUNICIPAL Y SOCIOECONÓMICO DE ESTELLA-LIZARRA, SA” (GEDEMELSA) UDAL SOZIJETATEA.

“Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizarrá, SA” sozietate anonimo pertsona bakarrekoa da, eta Lizarrako Udala da akziodun bakarra; 2006an sortu zen enpresa, 60.500 euroko kapital sozialarekin.

Sozietatearen Batzar Nagusiak, 2014ko ekainaren 5ean, sozietatearen kontuak onesteko akta eskuratu du. Kontuek honakoak jasotzen dituzte: 2013ko egoera-balantzea, galeren eta iragazien kontua eta ondareko aldaketen egoera-orria.

Udal-sozietate horren egoera-balantzea eta galeren eta irabazien kontua, 2013ko abenduaren 31n, honako hauek izan ziren:

## Egoera-balantzea

Aktiboa	2013	2012	Ondare garbia eta pasiboa	2013	2012
Aktibo korrontea	58.666	61.250	Ondare garbia	58.691	61.138
Zordunak	132	103	Kapitala	60.500	60.500
Finantza-inbertsioak epe laburrera	56.500	59.500	Borondatezko erreserbak	638	460
Eskudirua	2.034	1.647	Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboa	-	-
			Ekitaldiko emaitza	-2.447	178
			Pasibo arrunta	-25	112
			Merkataritzako hartzekodunak	-25	112
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>58.666</b>	<b>61.250</b>	<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira</b>	<b>58.666</b>	<b>61.250</b>

## Galeren eta irabazien kontua

	2013ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
A) Ustiatzearen emaitza	-2.679	-478
7. Bestelako ustiatze-gastuak	-2.679	-478
B) Emaitza finantzarioa	232	709
b) Beste diru-sarrera finantzario batzuk	232	709
C) Zergen aurretiko emaitzak	-2.447	231
Mozkinen gaineko zerga	-	-53
<b>Ekitaldiko emaitza</b>	<b>-2.447</b>	<b>178</b>

Diru-sarrerak etorri dira Udalak jarritako kapitalaren epe finkoko ezarpenetik; gastuak, berriz, kontabilitatea eramateko eta urteko kontuak egiteko lansari profesionaletatik eta ordaindu beharreko sozietateen gaineko zergatik.

*Gomendatzen dugu udal-sozietatea likidatu eta desegin dadila, jarduerarik ez baitu.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 2an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas



